

✓ **ELEANIZTASUNA**

Txingudi Ikastolako ezaugarri nagusienetarikoa EUSKARA eta euskalduntasuna zabaltzea bada ere, inolaz ere ez du ahazten Hego Euskal Herriko beste hizkuntza: GAZTELANIAREN lanketari arreta berezia eskaintzen zaio.

Horrez gain, Txingudi Ikastolak bere gain hartzen du egungo gizarteak ezartzen duen premietariko bat: atzerritar hizkuntza bat edo gehiago menderatzea, alegia. Gurean INGELESA aukeratu da. Helburuak eskuratzeko giza nahiz material baliabideak erdietsi dira eta hizkuntzen programazioa etengabe eraberritzen ari gara. Hiru hizkuntzen trataera bateratua oinarri duen programazioa osatu dugu: hiru hizkuntzetarako aukeratu diren edukiak elkarren osagarri dira eta hizkuntzak erakusteko erabiltzen den metodologia ere bera da. Hartara, hizkuntza batean ikasitakoa besteen ikaskuntzarako lagungarri da.